

SARRERA

Feminismoak, Demokrazia ereduak eta Partaidetza Mintegia (SFDP) , PARTE HARTUZ (UPV-EHU) ikerketa talde kontsolidatuaren , “Feminismoa eta partaidetza” lan ildoak sustatutuz du. Mintegi ireki eta iraunkorra den hau, hasierako zalantza teoriko-praktiko batzuen ondorioz jaio da, eta hauei erantzuna(k) ematen saiatuko da hainbat hurbilpen teorikoen bitartez: Demokrazia, feminismoak gabe ulertzea posiblea al da? Zeintzuk dira egungo demokrazia ereduak eta feminismoen artean dauden loturak? Zeintzuk dira demokrazia eta feminismoaren arteko erlazio positiboak sustatzen duten partaidetza erak?

OBJETIVOS

- Egungo demokrazia, feminismo eta partaidetza eredu desberdinen arteko erlazioak eta elkarguneak aztertzea, gaia lantzen duten literatura lan klasiko zein unekoak irakurtzea eta iruzkinen bitartez
- Fomakuntza, elkarlanean eta gogoetaren sistematizazioa bilduko dituen eremu bat sortzea, non, interes ikertzaile eta ekintzaileak, demokrazia eta feminismoaren arteko erlazio ereduak kokatuko diren.
- Arlo teorikoan burutu diren ekarpenen gaurkotasanaz eztabaidatu eta ikusgai egitea. Beti ere, soziologia, filosofia eta politika zientziak bezalako jakintzagai desberdinetan oinarrituta eta, feminismoekin eta demokraziaren dinamikekin erlazionatuta.
- Ikuspuntu feminista batetik, emakumeen partaidetza eta egungo demokrazia eredu nagusien arteko erlazioak baldintzatu eta azaltzen dituzten elementuak identifikatzea.

MINTEGIAREN FORMATUA

Testuinguru markoa, interpretazio marko posible/desberdinak eta, feminismoek zein demokraziak nola elkar eragin duten eta gaur egun nola elkar eragiten dioten ulertzeko, funtsezko elementu eta analisi kontzeptu batzuk eskainiko dituzten, sei gai ardatzen inguruan lan egingo da

Mintegian parte hartzeko interesa duten pertsonak, eztabaidarako aukeratuak izan diren idazkien pasarteak jasoko dituzte. Aurreikusitako mintegi egunean, Discussanteak berrogeita bost minutuko mintzaldia egingo du, zeinetan, idazkiaren testuingurua, helburua, eta lerro nagusiak, demokraziaren ikerketari egindako ekarpen eta loturak azalduko dituen. Honekin batera, horren ostean emango den eztabaidarako lagungarri izango diren hainbat eztabaida ildo eta funtsezko galdera egingo ditu. Sarrera egin eta gero, galderak, iritziak, bizipenak, eta abar, mahaigaineratzeko ordubeteko epea irekiko da.

FECHAS Y EJES TEMÁTICOS

Otsailak 13 : Patriarkatua eta sexu genero sistema, “Demokraziari, sexuak axola al dio?”. Rosa Cobosen presentziarekin.

Testua: Kate Millet: Política sexual

Martxoak 13: Demokrazia eta dikotomiak: publiko-pribatu erlazioa

Testua: Carole Pateman: El contrato sexual

Apirilak 10: Posible eta desiragarria al da zainketaren etika bat egungo demokrazietan?

Testua: Carol Gilligan: La moral y la teoría. Psicología del desarrollo femenino

Maiatzak 15: Heritartasuna eta norbanakoa: Zein heritartasun ereduak oinarritzen dira egungo demokraziak?

Testua: Yris Marion Young: La Justicia y la Política de la diferencia

Ekainak 12: Sexualitatea, gorputzak, demokrazia eta kontrol patriarkalaren mekanismoak.

Testua: Judith Butler. Generoa desegin.

Uztailak 17: Demokrazia feminista, zer, nola, nortzuk, noiz eta non?

Testua: Anne Phillips: Engendering Democracy